

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Bera, Gobernuaren larrialdien kudeaketa-sisteman sartzen den aguazilak dituen lehenengo udalerrria

*Beaumont kontseilariak eta Berako alkateak lankidetzeta-hitzarmena sinatu dute, udaltzainak dituzten udalerrri guztiak plataforma teknologiko horretan sartuta daudenean*

Astelehena, 2017.eko otsailak 6

Nafarroako Gobernuak eta Berako Udalak polizien komunikazioko tresnak partekatzea hitzartu dute, Foruzaingoaren eta aguazilen artean larrialdien baterako kudeaketa egiteko, TETRA teknologia digitaleko irratizistemen bitartez.

Akordio hori arautzen duen lankidetzeta-hitzarmena berriki sinatu dute Nafarroako Jauregian Maria Jose Beaumont Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak eta Josu Irtzoki Berako alkateak. Lankidetzeta horren azken helburua da Foru Komunitatean segurtasun publikoko zerbitzu "eraginkorra, azkarra eta integratua" sortzea.

Era horretan, Bera izango da TETRA irratizisteman sartzen den aguazil-zerbitzudun lehenengo udalerrria, Nafarroan udaltzaingoa duten udal guztiak baitaude dagoeneko sistema horretan sartuta. Honako hauek, hain zuzen ere: Altsasu, Antsoain, Barañain, Berriozar, Burlata, Castejon, Cintruenigo, Corella, Lizarra, Noain- Elortzeko Harana, Iruña, Peralta, San Adrian, Zangoza, Tafalla, Tuter, Atarrabia, eta Zizur Nagusia.

Hitzarmen horri esker, Foruzaingoak eta Berako Udalak larrialdietako sistema bakarra partekatuko dute, polizia- eta segurtasun-baliabideen erabilera koordinatua eta eraginkorra lortzeko. Larrialdi baten aurrean, Foruzaingoaren Agintaritzak eta Koordinazio Zentroak aguazilen kokalekua ezagutuko du geo-kokapenerako sistema baten bitartez, eta aguazilak zuzenean komunikatu ahal izango dira aipatutako zentroarekin, portofonoen bitartez.

Berako Udalak hartuko ditu bere gain irratizistemiako terminalak erosteko, programatzeko, kontserbatzeko eta horiek GPS sistemara egokitzearekin lotuta sor daitezkeen gastuak.